


FUNTSEZKO BALIABIDEAK



1- GIZA BALIABIDEAK

Enpresak behar bezala funtziona dezan, lau bazkideok izango gara talde administratzailea, gure gaitasun kudeatzaileak baliatuz.

Sormenerako gaitasuna duten langileak beharko ditugu, hobekuntza eta ideia berriak txertatzeko.

Zehazki, informatikarako edo sistema informatikoak garatzeko gaitasuna duten pertsonak beharko ditugu.

Webgunea eta aplikazioa garatu beharko dute eta behin martxan dagoenean, bere mantentze-lanekin arduratu beharko dira.



3- FINANTZA BALIABIDEAK

Azkenik, finantza baliabideak beharko ditugu. Kasu honetan eskudiruak ez du garrantzi handirik izango, baina **bankuarekiko harremana** funtsezkoa izango da. Bazkideek kapital ekarpena egin beharko dute negozioaren garapenaren hasieran. Hasteko, kreditu linea bat sortuko dugu, ordaintzeko betebaharrei aurre egin ahal izateko. Esan bezala, bankuan kapital bat izatea beharrezko izango da, lokala, informazio prozesuetarako ekipamenduak...ordaindu ahal izateko.



2- BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisikoei dagokienez, nahiz eta beharrezkoak izan, haien kantitatea ez da handia izango. Esaterako, lokal bat beharko dugu; batetik, administratzaileen bileretarako eta bestalde, aplikazioa sortzeko eta bere funtzionamendua bermatzeko ekipamendu teknologikoa gordetzeko.

